

Beste ehun urterako garra

Txomin Peillen, Beñat Oihartzabal eta Xarles Bidegain kezkatuta daude Iparraldean euskarak bizi duen egoerarekin. Hala ere, aurrerapausoak egin direla adierazi dute. Bilbon, joan den astean Deustuko Unibertsitatean egindako mahai-inguruan aritu ziren horretaz.

ONINTZA ENBEITA

IPAR EUSKAL HERRIAN euskararen egoera kezagarria da. Egiten diren inkestek diote funtsezko mugimendua behera doala”, dio Beñat Oihartzabalek. Bidegainen esaldi hau ere ez da makala: “Duela ehun urte hilak behar genuela erraten zuten zenbaitek, eta ez da hala izan. Orain ez dakit bizirik ala erreanimazioan gauden!”. Bilbon, Deustuko Unibertsitatean elkartu ziren Txomin Peillen eta hirurak. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan euskarak zein egoera bizi duen aztertu zuten. Ez ziren sobera baikor azaldu. Peillenentzat kezagarria da Zuberoan umeek gurasoei frantsesez erantzutea. Badakite arazo hori Hego Euskal Herrian ere badela gaztelerarekin, baina ez departamendurik, ez erakunderik izan gabe zail ikusten dute geroa Iparraldean.

“Gazte ginela ezagutu genuen Ipar Euskal Herri euskaldunagoa”, kontatu du Oihartzabalek. “Hala ere, azpiko tokian zegoen euskara. Haren kontrako jokabidea garbia zen. Orain, inor ez da euskararen kontra minzatzuten eta euskararen alde egiten diren gauzek onespina dute. Horrekin ez da funtsezko ezer aldatuko, baina ona da”, haren arabera. Dena den, horren aldean garrantzia handia eman diote euskara legez ofiziala izateari. “Frantsesa da Frantziako Errepublikako hizkuntza ofizial bakarra eta hala azaltzen da bertako konstituzioan. Legeak euskara onartzeak gauzak aldatuko lituzke. Ez du irudi, baina jendearen pentsamoldean aldaketa eragiten du”.



Donibane Lohizuneko portua.

Xarles Bidegain bat dator horretan: “Euskaldunak ikusten badu, hala izatea normal dela, eta eskubidea duela euskaraz mintzatzeko, gehiago egingo du”. Ofizialtzeak euskara militantismo hutsetik aterako lukeela irizten dio, eta halako urratsak behar

“Euskara batua
Iparraldeko terminologiari
egokitu beharra dago,
ezberdina baita
administrazioaren
antolaketa osoa”

Beñat Oihartzabal

direla uste dute. Euskararen erabilera ez da, hala ere, Bidegainen kezka bakarra. Nolako euskara erabiltzen den ere aztertu beharra ikusten du. Izan ere, Iparraldeko gazteek euskara batutik gauza asko hartzen dutela esan du. Ondorioz, fonetikan, lexikotan... galera egon da. Ez du horrek asko harritu. Dioenez, “amurrairik ez badago, erreka ura ona ez delako izango da”, eta euskara ere zaindu ezean, halako galerak izatea arrunta zaio neurri batean.

Euren euskarari besteen moduko doinua eman beharrak aldatu du gazteen hizkera, Bidegainen esanetan. “Guk ematen dugun euskara euskaldunentzat atzerriko hizkuntza bezain hutsa da”, eta gazteen artean doinua

aldu diote besteen modukoa izan dadin. Horrekin ez du esan nahi euskara batuak euskara hiltzen duenik, “baina gozotasuna ez du erraz pasatzen uzten”. Txomin Peillenek ere euskalkia zaindu egin behar dela uste du. “Zuberoako ikastoletan zuberera ikasten dute lehenengo, eta gero irakasten zaie batua. Ikasi behar da batua, baina euskalkiarekin moztu gabe”, haren berbetan. Zuberoako idazleek lehenago gipuzkeraz idazten zutela aitortu du Peillenek. Hala ere, nafar lapurterara ez dutela inoiz jo. Gipuzkeraren eredu hartu zuten gehienek, zubererara salto egin arte. Oihartzabalek gaineratu du Euskaltzaindiaren lana ondo dagoela. Hau da, tarteka hiztegiari Iparraldeko hitzak sartzea ona dela, nahiz eta hitz horietako batzuk Iparraldeko leku askotan ere ezezagunak izan.

Baikor izateko arrazoiak ere agertu ditu Peillenek, nahiz eta kezkatuta egon: “Abertzaletasunaren hizkuntza izatetik, guztien hizkuntza izatera pasatu da euskara Ipar Euskal Herrian”. Ikastolek fama ona dutela esan du. “Eskola serioztat dituzte gurasoek ikastolak”, Peillenen esanetan. Gainera, zenbait alkate euskararen alde agertu direnetik euskarak prestigioa lortu duela irizten dio. Mauleko alkatea adibidez, euskaltzalea dela dio. Euskararen aldeko mugimendua bizirik dagoen seinale, sei euskara zerbitzu sortu dira Ipar Euskal Herrian. Gainera, orain, zenbait alkatek herritarren eskaerak euskaraz erantzun dituztela esan dute. Orain arte, Peillenek esplikatzen du udaletako idazkariekin euskaraz mintzatzea

posible zela leku askotan, baina idazkiak eta frantses hutsean egin izan direla herriko etxeetan. Orain baina, alkate batzuek idatziz ere euskaraz

“Euskaldunak ikusten
badu, hala izatea normal
dela, eta eskubidea duela
euskaraz mintzatzeko,
gehiago egingo du”

Xarles Bidegain

erantzuteko konpromisoa hartu dute. Aurrerapauso handia da hori, nahiz eta herri txikietan hasi den mugimendua, eta herri handietara heltzea oso urrun ikusten den oraindik.

Banakako ekimenak abian dira, baina legearen babesa falta dute. “Erakunderik ez daukagu, departamendua ere ez gara”, dio Peillenek, “aurrekontua dago euskarazko proiektuetan gastatzeko, baina ez

“14.000 zuberotar gara.
Urtero 3.000 frantses
etortzen dira Zuberoara.

Itotzen gaituzte”

Txomin Peillen

dago erakundetuta. Ez dago horretarako politikarik”. Gainera, erreferentziak ere falta dira. Oihartzabalen berbetan: “Udaletan euskaraz egitea posible da eta badira euskara teknika-

riak, baina edozein gauza egin behar dutelarik galdetzen dute ea nola idatzi behar duten euskaraz. Euskara batuak Iparraldeko terminologiari egokitu beharra dago, ezberdina baita administrazioaren antolaketa osoa”. Hegoalderako egin diren administrazio hitz-tegi eta landutako terminologiek ez dute balio beti Iparraldean.

Hego Euskal Herriatik jasotzen duten laguntzari ere berebiziko garrantzia ematen diote hirurek. Bidegainen ustez, “gu bakarrik bageunde okerragoa litzateke. Frantzia begira nola dauden okzitaniera eta bretoiera. Nahiz eta Iparraldean ezer ez egin, Hegoaldean zerbait egoteak pisu handia du”. Dena den, kontuz ibili behar da askotan, Oihartzabalen ustez. “Frantsesak oso itxiak dira euren gauzetarako, eta askotan, ikusi dute zerbait Iparraldeko indararekin lortu ez denean Hegoaldetik bultzatu dela. Orduan, badirudi, askotan ekimenak eta erabakiak hartzen direla, ez hala nahi dutelako, baizik eta egin ezean Hegoaldetik norbait hori egitera joango delako”.

Oraingoz, Peillenek esan duenez, mende hau iraungo du euskarak Ipar Euskal Herrian. Hortik aurrera pronostikorik egiten ez da ausartu. Dena den, Zuberoaren kasua ez dela erraza dio: “14.000 zuberotar gara. Hori Bizkaiko hainbat hiriren erdia ere ez da. Urtero, 3.000 frantses etortzen dira Zuberoara. Itotzen gaituzte”. Lapurdi eta Nafarroa Behean ere, berdin gertatzen dela azaldu du zentzu horretan. Eta baldintza horietan zaila da aurrerapausoak ematea. ■



Dive Tarpoon Urpekaritza



Kirol portua, A7 lokala • 48992 Getxo • Tel / Faxa: 94 4912577
e-posta: divetarpoon@euskalnet.net • web orria: www.divetarpoon.com


